

Osoko Bilkurak, 2023ko martxoaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

■ KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2023-KALD-3 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2023-KALD-3 zenbakia duena, jarraian ageri den partidakako xehetasunarekin:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 02.643.09.151.10 2022	PROIEKTUA. PERCH EGOKITU	18.150,00	28.100,00	46.250,00
1 02.601.16.151.10 2018	SANEAMENDU TANKEA-Akarregi	162.000,00	30.000,00	192.000,00
1 02.622.03.151.10 2021	URBANIZAZIO LANAK LORE ARTE EREMUA	135.994,18	33.005,82	169.000,00
1 02.642.01.151.10 2022	PLAN BEREZIA.LI-03-URUMEA	120.000,00	78.924,00	198.924,00
1 05.622.02.152.20 2020	ELIZATXO-PSIKOMOTRIZITATE GELA	153.552,30	53.247,70	206.800,00
1 02.601.01.153.10 2023	PORTU-ELIZATXO URB-II FASEA	-	133.500,00	133.500,00
1 02.227.04.231.11 2023	KONTRATUA: ZERBITZU SOZIOEDUKATIBOA	247.000,00	62.000,00	309.000,00
1 02.227.99.231.11 2023	PROGRAMA: AUZOZAINZA-SARE KOMUNITARIOA	38.000,00	222.000,00	260.000,00
1 05.622.01.152.20 2023	OBRAK KULTUR ETXEA	30.000,00	20.000,00	50.000,00
1 02.622.01.326.01 2023	SANDIUSTERRI. EKIPAMENDUAK	-	50.000,00	50.000,00
1 02.622.02.152.20 2023	SAN JOAN KONPARTSA. LOKALA	-	150.000,00	150.000,00
1 02.622.02.341.00 2023	INBERTSIOAK.KIROL INSTALAZIOAK	25.000,00	30.000,00	55.000,00
1 02.622.02.342.00 2023	INBERTSIOAK.KIROLDEGIA	-	60.000,00	60.000,00
1 02.622.02.342.01 2023	INBERTSIOAK.HUJI	-	26.500,00	26.500,00
1 02.622.01.341.00 2023	LATSUNBEKO FRONTOIA ESTALTZEA	-	490.000,00	490.000,00
1 02.622.01.342.00 2023	KIROLDEGIKO ROKODROMOA	-	350.000,00	350.000,00
1 05.622.01.323.10 2023	IKASTETXEAK-INBERTSIOAK	50.000,00	150.000,00	200.000,00
1 05.609.01.171.00 2023	HOBKUNTZAK-PARKEAK	-	50.000,00	50.000,00
1 05.601.02.153.20 2023	ANTZIOLAGO PASARELA BERRITZEA	-	60.000,00	60.000,00
1 05.623.02.165.00 2023	HOBKUNTZAK-KALE ARGITERIA	50.000,00	50.000,00	100.000,00
1 05.609.03.153.20 2023	KALE ALTZARIAK	15.000,00	30.000,00	45.000,00

ESKUEd883f4d-68bc-48b9-9f50-872f4a45fcdb

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 05.622.01.920.02 2023	UDAL ERAIKINAK-INBERTSIOAK	50.000,00	50.000,00	100.000,00
1 05.622.02.152.20 2023	OBRAK. ZERBITZU SOZIALEN ERAIKINA	-	35.000,00	35.000,00
1 02.622.02.152.20 2020	TURISMO BULEGOA-BERRITZE LANAK	364.674,27	60.325,73	425.000,00
1 02.622.02.152.20 2018	SANDIUSTERRI BERRITZEA-DANTZA-MUSIKA	924.013,46	139.486,54	1.063.500,00
1 02.622.03.152.20 2022	UDAL ARETO NAGUSIA. BIRGAITZEA	323.436,14	51.563,86	375.000,00
1 09.609.01.153.30 2019	HE-1-KOMUN PUBLIKO BERRIAK	86.989,50	8.010,50	95.000,00
1 05.609.02.153.20 2023	KIOSKOA-JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI	-	50.000,00	50.000,00
1 02.227.07.920.30 2023	ONDAREA BERRESKURATZEKO LANAK	-	130.000,00	130.000,00
1 02.600.01.414.00 2023	MENDI LURREN EROSKETA	-	500.000,00	500.000,00
1 02.227.07.134.00 2023	AZTERKETA TEKNIKOAK-INGURUMENA	-	18.000,00	18.000,00
1 02.227.99.172.20 2023	URUMEA-AISIALDI GUNEA	25.000,00	15.000,00	40.000,00
1 01.121.06.920.10 2023	SOLDATA IGOERA/ERREFORTZUAK	380.300,00	100.000,00	480.300,00
GUZTIRA		3.199.109,85	3.314.664,15	6.513.774,00

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000.00 2020	GASTU OROKORRETAKEO DIRUZAINZTA GERAKINA	2.933.711,45
b	2 870.02.000.00 2020	FINANT. LOTUA GAST. DIRUZAINZTA GERAKINA	222.000,00
d	1 02.622.02.152.20 2021	BETERRI.ITUROLA.ERAIKINA	158.952,70
FINANTZAKETA GUZTIRA			3.314.664,15

Kontu-hartzaileak txostena egin du. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aurretik adierazitako guztia aintzat hartuta,

Proposamena:

Osoko Bilkurak AKORDIO HAU HARTZEA

Lehena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2023-KALD-3 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	100.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	447.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	2.767.664,15
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		3.314.664,15

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
6 (GASTUAK)	INBERTSIO ERREALAK	(-)158.952,70
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	3.155.711,45
GUZTIRA		3.314.664,15

Bigarrena.- Inbertsiotarako Funtsa aldatzea egitasmo berriak(*) gehituz, azterlan fasean egonik eta oraindik erabat zehaztu gabe dauden egitasmoen finantzaketa aurreikusteko. Horretarako, dagokion erreserba egingo da Diruzaintzako Gerakinean. Zerrenda hau urtero berrikusiko da.

Egitasmoen zerrenda:

EGITASMOAK	KOP. €
Ave Maria eraikina	783.000
Zubipe-Landare kirol instalazioak. Uholdegarritasuna.	2.000.000
Martindegi euri-urak jasotzeko.	500.000
Panel fotovoltaikoak udal eraikinetan	500.000
(*) Portu-Elizatzko igogailua	1.000.000
(*) Urumea eremuaren garapena: aparkalekua.	1.469.985
(*) Auditoriuma.	1.000.000
Guztira	7.252.985

Egitasmo hauek dagokion urteko aurrekontuan txertatzeko, aurrekontu aldaketa espedientea tramitatu beharko da.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Hernani, 2023ko martxoaren 23(e)an

Idazkaria

Gudarien Plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUed883f4d-68bc-48b9-9f50-872f4a45fccb**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA

KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO KREDITU ALDAKETARAKO FINANTZAKETA: GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GERAKIN ERABILGARRIA ETA FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZA GERAKINA

Nik, Aitor Sarasola Salaberriak, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, alde batetik 2022ko aurrekontuaren likidazioa ikusita, eta 2023ko aurrekontuan orain arte egindako kreditu aldaketak aztertuta; eta bestetik, kreditu gehigarriak finantzatzeko baliogabetu nahi diren kreditu erabilgarriak aztertuta,

Ziurtatzen dut:

1.- Gastu orokorretarako diruzaintza gerakin likido erabilgarria, finantzaketarako baliabide gisa erabil litekeena, 6.881.973,06 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

Diruzaintzako gerakina guztira	29.801.103,60
(-) Kobrantza zalantzagarriko saldoak	1.270.866,72
(-) Gehiegizko finantzaketa lotua	1.801.562,39
<hr/>	
Gastu orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina	26.728.674,49
(-) Aurreko kreditu aldaketetan erabilitako diruzaintzako gerakina	10.839.164,27
(-) Kontingentzietarako erreserbatutako diruzaintzako gerakina	5.672.437,16
(-) Inbertsio Funtserako dotazioa	3.335.100,00
<hr/>	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin erabilgarria	6.881.973,06

2.- Finantzaketa lotua duen gastuetarako diruzaintza gerakin erabilgarria, finantzaketarako baliabide gisa erabil litekeena, 1.736.222,39 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

Gehiegizko finantzaketa lotua, hasieran	1.801.562,39
(-)Gehiegizko finantzaketa lotua, erabilia	65.340,00
<hr/>	
Gehiegizko finantzaketa lotua, erabilgarria	1.736.222,39

3.- Baliogabetzeko proposatu den eta jarraian zerrendatzen den kreditua erabilera libreko saldoei dagokiela. Izan ere, organo eskudunak ez du erabiltezin deklaratu, eta hasieran horren kargurako gastuak baimendu baziren ere, bertan behera gelditu dira. Gainera, kredituaren baliogabetzeak ez die kalterik sortuko zerbitzuei, ezta entitate honen interes orokorreki ere. Bestalde, partidari kreditu-atxikipena egin zaio bestelako erabilpenik izan ez dezan. Azkenik, aipatutako kreditua ez da sarrera finalistekin finantzatutako.

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 02.622.02.152.20 2021	BETERRI.ITUROLA.ERAIKINA	158.952,70
GUZTIRA		158.952,70

Eta espedientean jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut.

Hernanin, 2023ko martxoaren 16an

Aitor Sarasola Salaberria, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzeko duenak, 4.1. artikuluan b) letran ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Proposamenen jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, proposamenen espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikuluan arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Hernani, 2023ko martxoaren 16an
Kontu-hartzailea

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2023. URTEKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Azaroaren 8ko 3/2022 Foru Dekretu-Araua, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. HERNANI
2. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2023. urtean:

Defizita:	14.060.215,72
DGarekin finantzatutako defizita:	14.060.215,72

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkulua:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	33.136.500,00
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	47.196.715,72
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	-14.060.215,72
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	14.060.215,72
DGak finantzatutako defizita:	14.060.215,72
Finantzaketa ahalmena / premia, erreferentziazko defizitarekin alderatzeko	0,00

2023. urterako ez da egonkortasun helbururik ezarri, baina bai, ordea, erreferentziako defizit bat, eta gomendagarria da udalak hura ez gainditzea. HERNANIren kasuan, erreferentziako defizit hori -301862 euroakoa da.

Bi zenbateko horiek alderatuz, ikus daiteke udalaren finantzaketa ahalmen/beharrak erreferentziako defizita ez duela gainditzen.

Finantzen iraunkortasuna

2023-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2022. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,00

Kalkulua egiteko, 2022-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2023. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2023. urterako aurreikusitako amortizazioak.

2023. urterako zor biziaren helburua etenda dago.

Gastuaren araua

2023. urtean gastu konputagarriaren bilakaera honakoa izan da:

	2023	2022
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	47.196.715,72	31.346.534,25
Zorraren interesak:	0,00	0,00
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	1.483.100,00	3.809.275,18
Gastu konputagarria:	45.713.615,72	27.537.259,07
Gastu konputagarriaren hazkundera:	66,01%	

2023. urterako gastu arauaren helburua etenda dago.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez du gainditu 2023 ekitaldirako ezarritako erreferentziako defizita. Beraz, ez du 3/2022 FDAren 1.3 artikulua aurreikusitako plan ekonomiko finantzariorik egin behar.

.....(e)n, 202....(e)koaren(e)an.
Kontu-hartzailea